Gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko zerbitzua. Gizarteratze eta laneratze taldeak (EISOL).

Prestazio mota: Bermatua.

Baliabide mota: Arreta anbulatorioko zerbitzua.

Baliabidearen xedea: Ingurune irekian esku hartzeko zerbitzua, zeinaren xedea baita gizarteratu eta laneratzeko arazoak dituzten pertsonen lan aukerak hobetzea, enplegu normalizatua edo babestua lortzen laguntzeko, banakako ibilbideak eta akonpainamendu soziala eginez.

Onuradunak: 18tik 65 urtera bitarteko pertsonak, gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan daudenak.

Jasotzeko baldintzak:

- Nafarroan bizitzea.
- Kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuak emandako aldeko balorazio teknikoa edukitzea, eta bertatik bideratua izatea.

Zerbitzua irekita: Urteko lan egun guztietan, astelehenetik ostiralera.

Zerbitzuaren intentsitatea: Gutxienez 4 ordu sei hilean behin, jarduera hauekin eta banakakoaren arreta planean ezarritako banakako beharrekin bat: erabiltzailearen eta haren ingurunearen balorazioa, gizarteratze eta laneratzerako banakako ibilbideak diseinatzea, akonpainamendu soziala, enplegua aurkitzeko laguntza, lan merkatu normalizatuan sartu eta mantentzeko laguntza, enplegu prospekzioa eta prestakuntza.

Emateko epea: Hilabetea.

Ordainketan parte hartzea: Ez.

Jarduteko eremua:
Gizarte zerbitzuen barrutia.